



OSASUN GEHIAGO

Adimen eta garapen urritasuna
duten pertsonen osasun arreta
hobetzeko jarraibideak



FEVAS



FEVAS

Federación Vasca de
Asociaciones en Favor de
las Personas con
Discapacidad Intelectual

944 211 476
fevas@fevas.org

Colón de Larreátegui 26, bajo C
48009 BILBAO
www.fevas.org

Laguntzaileak:



Fundación ONCE
para la Cooperación e Inclusión Social
de Personas con Discapacidad



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GAZTARTE
POLITIKETAKO SAIALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

FEVAS

Euskadiko Autonomia Erkidegoan adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen laguntza eta zerbitzu espezializatuak ematen dizkiegun familien elkarteak ordezkatzeko ditugu. FEVAS, kalitate zerbitzuen diseinuan eta pertsonengan zentratutako esku-hartze ereduen ezarpenean ibilbide historiko luzeena duten erakundeek – sarritan erakunde aitzindariak – osatzen dugu.

Gure xedea, adimen urritasuna duten pertsonen eta beraien familien laguntzak eta aukerak hobetzen zentratzen da. Horrez gain, zenbait ekintza bultzatzen dugu, gizarte zuzenagoa eta inklusiboagoa lortzeko. Gure jarduketak gidatzen duten printzipio etikoen artean pertsona guztien duintasunaren erabateko errespetua dago. Entre los principios éticos que conducen nuestra actuación está el respeto primordial por la dignidad de todas las personas.

FEVAS OSASUN ALORREAN

Osasunaren alorrean, Hiru lurraldeetan banatutako zenbait osasun baliabide ditugu, adimen urritasuna, burmuin paralisia eta Autismoaren Espektruaren Nahasmena duten pertsonen alor horretan dituzten beharrei erantzuteko. Burmuin Paralisia eta Autismoaren Espektruaren Nahasmena ez doaz ezinbestean adimen urritasun bati loturik, baina kontuan izan beharreko berezitasunak partekatzen dituzte osasunaren zainketan, eta ezinbestekoa da eragile guztiak horren inguruan sentsibilizatzea.

Biztanleriaren %1-2k adimen urritasuna du.

100- 150 jaiotzetatik pertsona batek Eredu Autistako Araza du.

Burmuin paralisia prebalentzia 1.000 jaiotzetatik 2-3 pertsonengan ematen da.

.....

Burmuin Paralisia eta Autismoaren Espektruaren Nahasmena ez doaz ezinbestean adimen urritasun bati loturik, baina kontuan izan beharreko berezitasunak partekatzen dituzte osasunaren zainketan.



ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNAK OSASUNAREN ZAINKETA BALDINTZATZEN DU

Adimen urritasuna duten pertsonentzat eta beraien familientzat osasunaren zainketa funtsezko ardura da. Eskubidea izateaz gain, oso alderdi garrantzitsua da pertsona guztien bizitzan, eta kasu honetan esanahi berezia hartzen du.

Adimen urritasuna pertsonaren beste ezaugarri bat da, inolako patologiarekin ezinbestean loturik ez doan ezaugarria, batzuetan lotura horiek agertzen diren arren. Kontuan izan behar den berezitasuna da, pertsonari mugak ezartzen baitizkio bere osasuna kudeatzeko orduan, zaurgarriago bilakatuz eta osasun sistema erabiltzea zailduz.

Hori dela eta, beraien osasun arretan alor hauetako zailtasunak izan behar dira kontuan:

- + Komunikazioan (informazioa adieraztea eta ulertzea).
- + Sintomak ezagutzean.
- + Azterketan, prebentzioan, auto-zainketan... beharrezkoa den laguntzan.

Adimen urritasuna ez da ulertu behar pertsonak homogeneizatzen dituen ezaugarri gisa, aniztasun funtzionala duen eta norbanakoei zuzendutako arreta eta laguntza eskatzen dituen ezaugarria da.

LAGUNTZAK

Zailtasun horiek murrитеko, laguntzak eskaini ditzakegu, hau da, pertsonen trebezien osagarri diren eta norbanako gisa duten funtzionamendua bultzatzen duten baliabideak eta estrategiak. FEVAS barruan gauden erakundeak beraien esanetara gauden beste laguntza bat gara.

KONTSULTAN KONTUAN IZAN BEHARREKO ESTRATEGIAK ETA BALIABIDEAK

- + Zuzenean hitz egitea adimen eta garapen urritasuna duen pertsonarekin, eta ez bera aurrean egongo ez balitz bezala.
- + Naturaltasunez eta gertutasunez tratatzea.
- + Hizkuntza ulertterraza, teknizismorik gabea, erabiltzea.
- + Zalantzak aurreratzea eta elkarlanean aritzeko gonbidapena egitea; ulertu duela adierazten duten galderak egin ditzake. Batzuetan "bai" erantzunak ez du ongi ulertu duela esan nahi.
- + Denbora ematea eta isiltasun uneak errespetatzea. Erantzuna galderatik urrun egon daiteke, baina askotan, erantzuna egoten da.
- + Pertsona heldu gisa tratatzea, heldua bada.
- + Ahal den neurrian, ingurunea ezaugarri pertsonaletara egokitzea; giro abegitsua, kontsultarako denbora, hitzorduak lehen edo azken orduan jartzea, etab.
- + Komunikatzeko metodo alternatiboak erabiltzea (argazkiak, marrazkiak...).
- + Osasun prozesuari buruzko informazio argia eta erraza ematea, ahal izanez gero idatziz.

Laguntzaileek ez dute pazientea ordezkutzen, baina oso laguntza garrantzitsua dira ulertzeko eta informazioa jasotzeko orduan.

Adimen eta garapen urritasuna duten pazienteek informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzeko eskubidea dute. Baimen hori eman ezin badute, eskatu senideari.

Adimen eta garapen urritasuna duten pertsonak hobeto sentituko dira jarraibide hauek jarraitzen badira eta beraien osasuna denen konpromisoa dela ikusten badute.



FEVASek pertsonan zentratutako arreta eredu defentsatzen du -osasuna funtsezko alderdia da- eta Osasun Sistema Publikoarekin elkarlanean aritzearen aldeko apustua egiten du.

FEVAS OSATZEN DUGU

+1.272
boluntariok

+2.056
profesionalek

(osasun alorreko 108
espezialista: sendagileak,
fisioterapeutak,
psikologoak, erizainak...)

+10.725
famiak

Adimen edo/eta
garapen urritasuna
duten

+10.752
pertsonak